# Bestelako Iragarpen Ofizialak
# Otros Anuncios Oficiales

BERGARAKO UDALA

IRAGARPENA, San Antonio-Mahasterreka Plan Partzialaren «D» H.I.A.ko Plan Orokorraren Elementuen Aldaketa eta Osagarrizko Arauei buruzkoa dena. 6293

IRAGARPENA, «E» eta «F» H.I.A.ko mugei buruzko San Antonio-Mahasterreka Plan Partzialari buruzkoa dena. 6294

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

ANUNCIO referente a la Modificación de Elementos del Plan General y Normas Complementarias de la U.A.U. «D» del Plan Parcial de San Antonio-Mahasterreka. 6293

ANUNCIO referente a la Modificación del Plan Parcial de San Antonio-Mahasterreka, relativo a los limites de la U.A.U. «E» y U.A.U. «F». 6294

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA, KULTURA ETA TURISMO SAILA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA, OSASUN ETA KONTSUMO SAILA ETA HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

**2609**

**195/1989 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, «Euskadi 1993ko Europan» Egitarauaren barneko den Pobreziaren aurkako Osoko Planaren ondoriozko arlokako neurriak aztertu eta proposatzeko Sailarteko Batzordea sortzen duena.**

«Euskadi 1993ko Europan» Egitarauaren barne aurrikusitako Pobreziaren aurkako Osoko Planak aginte publikoen aldetikako hiru iharduketa maila taiutzen du. 1 eta 2 mailak Dekretu banaren bidez garatu dira, otsailaren 28ko 39/1989 eta martxoaren 21eko 64/1989 Dekretuen bidez, hain zuzen ere. Hirugarren maila arlokako politikak gauzatzeari dagokio; horien artean 1988.eko apirilaren 21ean Lan eta Osasun Batzordeak onartutako Agirian Eusko Legebiltzarrak zehaztutakoak nabarmen litezke. Neurri horien xedea Pobreziak berarekin dakartzan arazo guztiei aurre egitea dugu, eta horrek alderdi sozial eta ekonomiko ugariren ardura hartzera behartzen gaitu, hala nola hezkuntzarena, osasunbideen suztapenarena, kultura garapenarena eta bizitza maila orokorrarena.

Aipatu hirugarren maila horrek, beste bietan aurrikusitakoaz bestera, ez dakar berarekin diru-gehiketarik egin beharrik, honetan eskuhartzen duten Sailen agizko aurrekontuen barne hartuta egon behar baitute iharduketa horiek. Hala ere, beharrezkoa dugu politika horiek koordinatzeko neurriak erabakitzea, Administrazio Publikoaren ihardueran beti aintzat hartu beharrekoak diren baliabideen ekonomia eta eraginkortasun printzipioak direla-eta.

Beraz, giza baliabideak zein teknikoak arrazionalizatzeko, eta halaber emaitzak erdiesteko, beharrezkotzat jotzen da Sailarteko Batzordea ezartzea, bertan eskuhartzen duten Sailek aurkeztutako arlokako neurri eta iharduketa proposamenak jasotze zein aztertze zereginak izango dituena, eta halaber hauek dagoz-

## DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y FINANZAS, DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION, DE CULTURA Y TURISMO, DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL, DE SANIDAD Y CONSUMO Y DE URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

**2609**

**DECRETO 195/1989, de 31 de Agosto, por el que se crea la Comisión Interdepartamental para el estudio y propuesta de medidas sectoriales derivadas del Plan Integral contra la Pobreza integrado en el Programa «Euskadi en la Europa de 1993».**

El Plan Integral contra la Pobreza, previsto dentro del Programa «Euskadi en la Europa de 1993», diseña 3 niveles de actuación por parte de los poderes públicos. Los niveles 1 y 2 han sido desarrollados a través de sendos Decretos 39/1989, de 28 de Febrero y 64/1989, de 21 de Marzo. El tercer nivel corresponde a la aplicación de políticas sectoriales, entre las cuales cabe resaltar las enumeradas por el Parlamento Vasco en el Documento aprobado por la Comisión de Trabajo y Sanidad el 21 de Abril de 1988. Dichas medidas tienen como objetivo abordar toda la problemática que la Pobreza conlleva, lo que obliga prestar atención a una multiplicidad de facetas sociales y económicas, tales como la educación, la promoción de la salud, el desarrollo cultural, la calidad de vida en general.

El citado tercer nivel, a contrario de lo previsto en los otros dos, no conlleva un reflejo presupuestario adicional, ya que las actuaciones deben estar comprendidas en los presupuestos ordinarios de los Departamentos implicados. Sin embargo, es preciso arbitrar medidas de coordinación de dichas políticas, dado los principios de economía de recursos y de eficacia que presiden la actuación de la Administración Pública.

Por consiguiente, en orden a la racionalización de los recursos técnicos y humanos, así como a la obtención de resultados, se considera necesario establecer una Comisión Interdepartamental con funciones tanto de estudio como de elevación de propuestas de medidas y actuaciones sectoriales por parte de los

kien erakundeei bidaltzea (Jaurlaritza, Kudeaketa Batzordea, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua).

Horren ondorioz, honako Sailburuek, Lan eta Gizarte Segurantza; Ogasun eta Finantza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Kultura eta Turismo; Osasun eta Kontsumo; eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuek, hain zuzen ere, batera proposatuta, Jaurlaritzak 1989.eko abuztuaren 31ko bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. Atala.*— «Euskadi 1993ko Europan» Egitarauaren barneko den Pobreziaren aurkako Osoko Planaren ondoriozko arlokako neurriak aztertu eta proposatzeko Sailarteko Batzordea sorrarazten da.

*2. Atala.*— Batzordearen buru Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantzaren Administraziorako Sailburuordea izango da, eta bertan, Batzordeko Idazkari izango den aipatutako Saileko Gizarte Ongizaterako Zuzendariaz gain, honako Sail hauetako ordezkari bana izango da partaide, Sailburuorde mailakoa bera:

— Ogasun eta Finantza Saila.
— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

— Kultura eta Turismo Saila.
— Osasun eta Kontsumo Saila.
— Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

Halaber, eta Batzordeak hala eskatuz gero, Jaurlaritzako beste Sail batzuetako ordezkariek ere izango dute bertara agertzerik, hauen eskuduntzeko izan daitezkeen gaiei ekiten zaienetan.

*3. Atala.*— Batzordeak bere zereginak garatzeko egokitzat jotzen duen Sailetako edozein Goren Mailako Kargudun eta Teknikoren laguntza jaso ahal izango du.

*4. Atala.*— Sailarteko Batzordeak bere egitekoa betetze horretan hartzen dituen erabakiak, otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuko 13. atalean aurrikusitako Kudeaketa Batzordeari bidaliko zaizkio, honek proposatutako iharduketak balioetsi eta azter ditzan eta jarraipena egin diezaien, eta horiexek Pobreziaren aurkako Planaren barnean bil ditzan.

Aldi berean, Kudeaketa Batzorde horrek beste ezer aurretik aztertu beharrekotzat jotzen dituen neurriak agertuko dizkio Sailarteko Batzordeari, hala badagokie, bertan ordezkaturik dauden Sailetako bakoitzak gauza ditzan.

Era berean, Sailarteko Batzordeak hartutako erabakien berri Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluari ere emango zaio.

*5. Atala.*— Honako hauek izango dira aipatutako Batzordearen egitekoak:

— Iharduketak aztertzea, eta hala badagokie, horiek bideratzea eta jarraipena egitea.

— Hartutako neurriak eta hauek gizarte inguruan duten eragina balioestea.

— Neurrien kostu ekonomikoa balioestea eta aurrekontu-baliabideak banatzea.

— Bere eskuduntzako beste edozein gai aztertzea eta horri buruzko txostena egitea; gauza bera egingo du horretarako bidaltzen zaizkion guztiekin ere.

Departamentos implicados, y su remisión a los organismos correspondientes, (Gobierno, Comisión Gestora, Consejo Vasco de Bienestar Social).

En su virtud, a propuesta conjunta de los Consejeros de Trabajo y Seguridad Social; Hacienda y Finanzas; Educación, Universidades e Investigación; Cultura y Turismo; Sanidad y Consumo; Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 31 de Agosto de 1989,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Se crea la Comisión Interdepartamental para el estudio y propuesta de medidas sectoriales derivadas del Plan Integral contra la Pobreza integrado en el Programa «Euskadi en la Europa de 1993».

*Artículo 2.*— La Comisión estará presidida por el Viceconsejero de Administración de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, y formarán parte de la misma, además del Director de Bienestar Social del citado Departamento que a su vez será el Secretario de la Comisión, un representante de los siguientes Departamentos con rango de Viceconsejero:

— Departamento de Hacienda y Finanzas
— Departamento de Educación, Universidades e Investigación
— Departamento de Cultura y Turismo
— Departamento de Sanidad y Consumo
— Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente

Igualmente y a instancia de la Comisión podrán asistir a las reuniones representantes de otros Departamentos del Gobierno, cuando se aborden temas que puedan afectar a la competencia de éstos.

*Artículo 3.*— La Comisión podrá estar asistida por cuantos Altos Cargos y Técnicos de los Departamentos se considere oportuno para el desarrollo de sus funciones.

*Artículo 4.*— Los acuerdos adoptados por la Comisión Interdepartamental, en el ejercicio de sus funciones, se elevarán, para la evaluación, análisis y seguimiento de las acciones propuestas e integración de las mismas en el Plan de Lucha contra la Pobreza, a la Comisión Gestora prevista en el artículo 13 del Decreto 39/1989, de 28 de Febrero.

A su vez, esta última planteará anualmente a la Comisión Interdepartamental las medidas, que considere prioritarias para el estudio, y en su caso, ejecución por cada uno de los Departamentos del Gobierno allí representados.

Igualmente, de los acuerdos adoptados por la Comisión Interdepartamental se informará al Consejo Vasco de Bienestar Social.

*Artículo 5.*— Serán funciones de la citada Comisión:

— Estudio, y en su caso, planteamiento y seguimiento de acciones.

— Evaluación de las medidas adoptadas y de su incidencia en el medio social.

— Valoración del coste económico de las medidas y distribución de los medios presupuestarios.

— Estudio e informe, de cualquier otra cuestión que sea de su competencia, y todas aquellas que se le remitan para su información.

*6.— Atala.*— Batzordeak erabakitako arlokako neurri proposamenek honako alderdi hauek hartu beharko dituzte gutxienez:

a) Egoeraren azterkuntza.
b) Helburuak eta iharduketa lehentasunak.
c) Ezarritako helburuen arabera hartu beharreko neurriak.
d) Aurrekontu beharrak.
e) Kudeaketa eta jarraipenaz arduratuko diren erakundeak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Administrazio Prozeduraren Legeko Lehenengo Idazpuruko II Atalburuan eta Dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorriz arautuko du Batzordeak proposamenak aurkezte prozedura, eta baita bere barne funtzionamendua ere.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

2. atalean aurrikusitakoa betetzearren, Batzordea osatzen duten Sailetako Sailburuek atal horrek aipatzen dituen ordezkariak izendatuko dituzte, Xedapen hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasi eta 15 eguneko epean.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko abuztuak 31.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailburua,
JOSE RAMON RACALDE DIEZ.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGUI ARAMBURU.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

Osasun eta Kontsumo Sailburua,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

Hirigintza, Etxebizitza
eta Ingurugiro Sailburua,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

*Artículo 6.*— Las propuestas de medidas sectoriales acordadas por la Comisión deberán abarcar como mínimo los siguientes aspectos:

a) Diagnóstico de la situación.
b) Objetivos y prioridades de actuación.
c) Medidas a adoptar en función de los objetivos fijados.
d) Necesidades Presupuestarias.
e) Organos encargados de la gestión y seguimiento.

DISPOSICION ADICIONAL

La Comisión regulará el procedimiento de formulación de las propuestas, así como su funcionamiento interno, de acuerdo con lo dispuesto en el Capítulo II del Título Primero de la Ley de Procedimiento Administrativo y el presente Decreto.

DISPOSICION TRANSITORIA

Al objeto de dar cumplimiento a lo previsto en el artículo 2.º, los Consejeros de los Departamentos integrantes de la Comisión designarán a los representantes, a que se refiere dicho artículo, en el plazo de 15 días a contar desde la entrada en vigor de la presente Disposición.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz,a 31 de Agosto de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

EL Consejero de Educación,
Universidades e Investigación,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGUI ARAMBURU.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda
y Medio Ambiente,
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.